



ILUSIOA ZABALTZEN
DUTEN IPUINAK

bibliotecainfantil.fundaciononce.es




1

Silvina DANTZARIA



2

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.



3

DOWN SINDROMEARI BURUZ

Zure gorputza **MILIOIKA ZELULAZ** osatuta dago.

Horietako bakoitzak gene bat dauka.

Geneak jarraibideen eskuliburu baten modukoak dira.

Eta gene horiek guztiak kromosomaz eratuta daude, hau da, eskuliburuaren **HIZKIAK**.

Batzuetan, kromosomak nahastu egiten dira 21 parean, eta behar baino gehiago datoz.

Down Sindromea deitzen zaio horri. Sindrome hori daukaten umeeek oso itxura adierazgarria daukate, baina, era berean, elkarren artean oso desberdinak dira: **BATZUK ALTUAK DIRA, BESTE BATZUK BAXUAGOAK, EDO ARGALAGOAK ALA LODIAK....**

Begiak txinatar-antzekoak dituzte, eta aurpegia argi-zulo eder baten modukoa da.

Pixka bat **ASTIROAGO** ikasten duten arren, haiek ere barre, negar, hazi eta amesten dute, guztiok bezalaxe, zuk bezalaxe.

Ondoren, Down Sindromea daukan neska oso berezi baten istorioa kontatuko dizugu. Silvina dauka izena.

4

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.

Kaixo, Silvina deitzen naiz. Badakit Silvina ez dela izen oso arrunta, baina jende guztiak behin eta berriz esaten dit ni ere **EZ NAIZELA NESKA ARRUNTA.** Gainera, Silvina izenak bailarina hitzarekin errimatzen du, eta ez da kasualitatez, dantza egitea delako gehien gustatzen zaidana, baina ez da nire trebetasun bakarra...

AMATXOREN, tripan nengoenean,

dantzan egiten nuen etengabe,
itsasoan barrena doan itsas-lamia

itsas-lamia
banintz bezala...



5



*Plié, relevé, entrechat, arabesque
jauziak eta assemblé eta batez ere
piqué... piqué mordoa, nire
mugimendurik gustukoena baita.*

Eta oso bira zailak dira,
baina horren



mariposa.

politak eta lirainak
direnez, egiten
ditudanean tximeleta
dirudit. Ama gaixoak
boteak, saltoak,
jauziak eta
ostikotxoak
etsipenez onartzen

zituen... Badakizue **AMAREN MAITASUNAK**
edozeri aurre egiten diola.

6

Julia da nire amaren izena, eta ederra iruditu zait beti, uda eta **OPOR ZAPOREA DAUKALAKO.**

Hain zuzen ere, amak ikusi ninduen lehen aldian, haurdunaldiaren laugarren hilabetean, oporretan geunden. **FOTOMIKROGRAFIA** (argazki oso oso txikia) egin zidaten, eta ikusi zuten kromosoma bat sobratzen zitzaidala.

"Trisomia dauka 21. parean"

esan zuten medikuek, serio-serio. Hasieran, aitatxo eta amatxo larritu egin ziren,



7



baina gero horren **ESANAHIAZ** informatu ziren, eta dena prestatu zuten, merezi nuen ongietorria egiteko. Benetan ondo egin zuten, eta horren entzuna izan zen nire etorrera, ezen etxean oraindik ere irauten duen

loreen, barren, besarkaden eta oparien zaparradak...
... Aiton-amonak, osaba-izebak, lehengusu-lehengusinak... Lagunak, maskotak eta auzokoak...

GUSTIAK NIRE ZAIN!

Orduz geroztik, inguruan hainbesteko maitasuna dut, ezen batzutan pentsatzen dudan **EZ ZAIDALA BARRUAN SARTUKO** eta gainezka egin ez dezan, **KOREOGRAFIA**



Nire irakaslearen laguntzarekin, **egUNEZ egUN**
Hobetzen Noa.

9

Orain malgutasuna, luzaketak eta **erlaxazioa** lantzen ari gara.

Esaten dit nire giharrak beti erlaxatuta daudela, eta dantza menderatzeko:

*"Zure gorpuzkera hobetu
eta indartu behar duzu,
Silvina"*

Eta a ze amorrazioa!
Ariketa-taulak
benetan

**NEKEZAK
DIRA...**



10



Baina ez zait esfortzua inporta
NIRE heroi...

Isadora Duncan, Anna Pavlova,
 Margot Fonteyn, Maya Plisetskaya...
 Ah! Eta haien ipuinen eta kondairen
 pertsonaiak:

GISSELE,
COPPELIA,
ODETTE,
JULIETA...

Hala ere, aitortu behar dizuet gauza
 bat... ez da hori nire benetako
 ametsa.

*Nire benetako
 ametsa zein den
 kontatuko dizuet?*



11

Hara... Pati izeneko neska bat daukat klasean,
 nire modukoa da, baina zaharragoa.

Oso lotsatia da, eta nahiz eta **BIKAIN
 DANTZATZEN** sduen, lotsa handia
 ematen dio.

Nire laguntza eta ahaleginekin, ohartu da
 dantza niri bezainbeste gustatzen zaiola.

Orain, nik asmatutako pausuak lantzen ari
 gara, eszenatoki batean dantzatzeko.

Eta nor hobeto horretarako, bera,
LNIRE LAGUNIK ONENA, baino?

Eta horixe da nire ametsa, egunen batean biok
BATERA DANTZATZEA.

Biontzako emanaldi eder bat...

12



GAINERA, IMAJINATZEN DUT DANTZATZEA
 NIK ADINA MAITE DUTEN GUZTIEKIN
 ARITU AHAL IZATEA...
 HAIEN DANTZA-IRAKASLEA IZANGO
 NAIZ ETA TXALOEKIN BEHAR
 BEZALA GOZATZEN IRAKATSIKO DIET.



AMAIERA